



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.altasu.net  
altasu@altasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

## **ORDENANTZA, ERAIKINEN GARAIERAK ARAUTZEN DITUENA (NAO 68 zbk, 2010eko ekainak 4)**

**ERAIKINAREN GARAIERA.**-Eraikinaren garaiera da zutikako distantzia espaloiko sestratik, fatxadaren lerroan, edo pisuetako azken solairuko sabaiko forjatuaren edo sabai izunaren beheko planoraino.

**GARAIERA NEURTZEKO MODUA.**-Kasu guztietan eraikinaren garaiera neurtuko da fatxadaren lerroaren erdiko puntutik pasatzen den bertikalean, espaloiarene mailatik forjatuaren edo sabai izunaren planoraino, lehen hormartean dagoen azken solairuan, haren luzera 20 metro ez bada. Hori baino luzeagoa bada, puntu baxuenetik 10 m-ra neurtuko da; eraikuntza mailakatzen ahal da, araudi partikularrak gailurrerako garaiera bakarria eskatzen duenean izan ezik.

**TEILATU HEGALAREN GEHIENENKO GARAIERA.**-Eraikinaren garaiera "teilatu hegalaren gehieneko garaieraren" bidez definitzen denetan, estalkiaren malda teilatu hegalaren goiko partetik abiatu behar da, eta ez inola ere bere beheko alde baino 20 cm gehiagoko garaieratik. Teilatu hegaleko beheko alde hori gehienez ere 10 cm garaiago egonen da azken forjatu etzanaren beheko plano baino. Teilatu hegalaren garaieraren neurketa hura osatzen duen planoan egiten da, eta egiturazko elementurik edo apaingarririk baldin bada (perroteak) ere, ez dira kontuan hartuko.

**IZKINAKO ETXEAK.**-Bi kale edo gehiagotara izkina egiten duen eraikinak garaiera handiagorako aukera ematen duen garaiera hartuko du; teilatu hegalaren edo gailurraren garaiera hori mantendu ahal izanen du eta garaiera hori onartu ahal izanen da garaiera apalagoko kalean gehienez ere 10 metroko luzeran.

**KATEGORIA EDO SESTRA DESBERDINEKO KALEETARA JOTZEN DUTEN FATXADAK.**-Eraikin bateko fatxada baldin badu bere fronte edo buruhormatik kategoria edo sestra desberdineko kaletara, eraikinaren garaierari dagokionez, kale bakoitzetik hartuko du dagokion garaiera, eta gehieneko sakonera orubearen sakoneraren erdia izanen da.

**GARAIERAREN GAINETIK BAIMENTZEN DIREN ERAIKUNTZAK.**-Debeku da baimendutako garaieraren gainetik deus eraikitzea, salbu eta eskaileren erremateak, igogailuak, tximiniak eta eraikinari zerbitzu egiteko beharrezko diren beste instalazio batzuk. Familia bakarreko etxebizitzetan izan ezik, teilatupeetan sortzen ahal diren espazioak trastelekutako erabil daitezke; horiek sarbide independentea izanen dute eskaileren aldetik; debeku da etxebizitzetara lotzea.

**INTERPRETAZIOAREN LEHENTASUNA.**-Ordenantza hauetatik heldu diren determinazioen eta hirigintzako araudi partikularren artean kontraesanik izanez gero, ordenantza honetatik heldu den interpretazioa gailenduko da.